

Ikastolako taupadak, sentitzen dituzu?

Taupada bizitza da eta taupadak bizi-bizirik daude Orioko Herri Ikastolan. Familia bakoitzaren taupadak osatzen dute Ikastola eta Ikastolak taupadez betetzen du herria; euskararen taupadak dira, eta berdintasun, aniztasun eta naturarekiko errespetuzkoak; goxoak, sentituak eta iraunkorrak. Norberak sentitzen dituenak eta denon artean eraikitzen ditugunak. Entzuten dituzu? Sentitzen dituzu?



Euskara taupadak eta denon taupadak

Ikastolako taupada, Euskara da. Euskara eta euskal kultura maite ditugu. Ikastolako taupadak dira. Hauek bizirik mantentzeko ez da nahikoa euskara ulertzea. Horregatik, euskara irakasteaz gain, euskara eta euskal kultura maita dezaten ahalegin

berezia egiten dugu. Gure arbasoengandik jasotako ondarea altxor gisa bizi dezaten eta heurek ondarea bizirik mantentzeko lan egin dezaten.

Ikastolako taupadak bizirik iraungo dute, denon artean egiten baitugu denona den Ikastola.

Familia taupada eta herri taupada

Etxea da Ikastola eta familia taupada honetan 713 ikasle, 441 familia eta 78 langile gaude. Denon artean egiten dugu denona den Ikastola eta honen parte dira Eñaut Sarriegi, Iker Elola eta Jon Itxaso ere.

Eñaut Sarriegi: "Familia txiki handi bat osatzen dugu. Gertukoa eta konfiantzazkoa. Kooperatiba bat gara eta gure seme-alaben hezkuntzan parte hartzen dugu."

Iker Elola: "Kezkatzen gaituzten gaiak jakinarazi eta elkarren artean irtenbide bat ematen saiatzen gara. Gure sentitzen dugu Ikastola."

Horrela izan zen Ikastola sortu zeneko 1971ko urria hartan eta horrela izaten jarraitzen du gaur egun ere. Herritik eta herriarentzat sortua eta Herri Onurarako izendapenarekin.

Jon Itxaso: "Herrigintzan sortu zen Ikastola eta gaur egun ere zer esan handia du. Bertatik pasatuko zahar, heldu zein gazte herrigintzan ikustea pozgarria da oso. Dantzan, buruhandietan, txaranga, festetan...harro egoteko modukoa da!"

Herriak eman zigun bizitza eta bizitza hori itzultzen diogu herriari. Santa eskea, inauteriak, aste kulturala, festa programak, mendi lasterketa, gau beltza, kultur emankizunak, tonbola...ezin dira ulertu Ikastolaren ekarpenik gabe. Elkarlanerako beti prest, herria egiteko beti prest.



ZATUZ IKASTOLARA BARRUTIK SENTITZERA

- Ate irekiak: otsailaren 3an, 10:30ean
- Tel.: 943-83 47 04
- E-Posta: orio@ikastola.eus
matrikulazioa@ikastola.eus
- Bulego ordutegia: 08:30-13:30 / 14:30-18:30



Berdintasun taupada, aniztasun taupada eta natura taupada

Ikastolan garatzen dugun pertsonak berdintasun, aniztasun eta natura taupadak ditu. Pauso sendoak emanez goaz aurrera eta eredu egokiak eskainiz Ikastolan. Horren isla da Ikastolako 3 zuzendariak emakumezkoak direla.

Bakar Oliden: "3 emakumezko ardura postuetan ikustea pozgarria da. Hor ere mezu garbi bat ematen ari gara gizarteari. Bizitzako esparru guztietan emakumezkoaren presentzia bistaratzeak etorkizun hobeto eta justuago batera eramango gaituela sinistuta gaude."

Gizartean ditugun eronkei aurre egin behar zaie eta hori da Ikastolak duen izaera propioa. Ikastola beti izan da eta gaur egun ere horrela da, aurrerakoia eta eraldatzailea. Hobetzeko proposamenak etengabe bilatzen dituenak, ez pedagogian bakarrik, baita gizarte moduan ere. Pertsonak ikasi dezaten baino, izaten ikasteko tokia da Ikastola.

Marijose Garate: "Jakina da pertsona bakoitza bakarra dela, beraz, bakoitza den bezalakoa onartu behar dugu taldelana sustatuz. Norbanakotik, taldera. Aniztasunetik berdintasunera. Hartu eta eman, eman eta hartu."

Amaia Ugalde: "Gure komunitate osoaren sarea josteko bide berriak eta hobeak bilatzen gabiltza etengabe bai pedagogikoki eraldatzen eta baita komunitateari egin diezaizkiokegun ekarpenetan ere."

Horren adibide garbi dira esaterako, pedagogia feministen formazioak Eider Goibururen eskutik, Elhuyar eta Ikastolen Elkartearekin elkarlanean garatutako itzulpen automatikoa hizkuntza askotara txertatuta web orrian edota jangelan zero zabor sortzeko ekimena. ■■■